

Kondenatu baten azken eguna, 1832ko edizioaren hitzaurrea.

“Kondenatu baten azkeneko eguna” egilearen izenik gabe 1829an argitaratuta, texto-motz batekin hasten zen, guztiz ezohikoa. Hurrengo argitalpenetan, heriotzaren zigorraren abolizioaren aldeko borroka argi eta garbi erakutsi zuen.

” (Autoreak) egin nahi izan duena, eta inoiz halako nimiñokeriaz arduratzen bada geroak bere obran ikustea nahi lukeena da, ez beti ere erraza eta aldi batekoa gertatzen den halako edo bestelako kriminal hautatuaren, halako edo bestelako salatu bereziaren defentsa bitxia, bazik eta oraingo eta geroko akusatu guztien aldeko aldarri orokor eta etengabea; zinezko epaitegi gorena den gizateriaren eskubide-puntu handia gizarte osoaren aitzinean ozenki aldarrikatua.”

“Benetako erruduna, berriz diot, neu naiz, hogeita bost urte honetan zuzentzezineko zigorrei aurka egin didan hau! Neu, hogeita bost urtetik hona, giza-biziaren ukiezina noiznahi defenditu izan dudan hau!...

Victor Hugok, orduan Batzar Nazionalako kidea zelarik, bere Charles semea defendatzea erabaki zuen, eta Sena distrituko Audientziaren aurrean “Événement” egunkariko heriotz zigorraren aurkako artikulua bat irakurri zuen. Akusazioa taxugabea zen arren (legeari errespetua faltatu izana), Victor Hugoren semea sei hilabeterako kartzelan sartu zuten.

Krimen hau, giza-biziaren ukiezina defendatzea, nire semeak baino zatiaz lehenago egin dut, zatiaz maizago. Neure burua salatzen dut, fiskal jauna! Larritasunezko inguruabar guztiekin egin dut, hartarako asmoz, setaz, ohikeriaz! (Higidura berri bat).

Bai, hala deklaritzen dut, zigor salbaien hondar horrek, talio lege zahar eta ulergaitz horrek, odola odol-ordaineko lege horrek aurka eduki nau nire bizitza osoan —bizitza osoan, epaile jaunok!—, eta bularrean arnasarik geratzen zaidano, nire ahalegin guztiez eginen diot buru idazle gisa, nire egitate eta bozka guztiez legegile gisa, hala deklaritzen dut (Victor Hugo jaunak besoa luzatu eta aretoaren hondoan, tribunalaren gainean dagoen gurutzea erakusten du) hiltzeko zigorraren biktima horren aitzinean, hortxe baitago, guri beha, guri entzuten! Belaunaldien ikasbide eternal gisa duela bi mila urte gizonaren legeak Jainkoaren legea iltzatu zuen urkamendi horren aitzinean egiten dut zin. (Hunkidura sakon eta ezin adierazia.)

«Charles Hugo-ren alde (Hiltzeko Zigorra)», 1851ko ekainak 11, Esanak eta Eginak, I, Exilioaren aurretik.



Par continue d'insister clabauder
contre la peine de mort. qu'est-ce
que c'est que toutes ces déclamations - la



1833

Louis Boulanger,
erretratua. MVH©AGK.
Paris

HERIOTZA

Victor Hugo. Heriotza-zigorraren aurka ozen mintzatzeagatik ez dago pozik...edota batere pozik ez dagoen epaile bat. MVH © PMVP